

Marisol Ariznabarreta Oregi

*Soraluze
Gipuzkoa (1945)*

Aurkibidea

Biografia



San Andres auzoko "Bozkoitxi" (Bagozkoitia) baserrian jaio zen. Gaztetan sarri joaten zen plazara saltzera, baita bertako giroa ikustera ere, bere jaiotetxea kaletik hurbil dago eta. Auzo bereko Obe baserrira ezkondu zen.

Zintak

SOR-048

• **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze

- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-07-14
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

SOR-049

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-07-14
- **Iraupena:** 30 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. 1928an Obe baserria erre zen

- **Erref:** SOR-048/001
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Bernardo 1917an jaio zen uztailaren 22an Obe baserrian. 1928an baserria erre egin zen eta berria egin zuten. "Lasto pila baten antzera" erre omen zen dena eta beraiek leihotik salto egin behar izan zuten. Animaliak bertan erre ziren. Hilabetetako haurra leihotik behera bota eta mahatsean kateatuta salbatu zen.

2. Baserria erre eta berria egin bitarteko kontuak

- **Erref:** SOR-048/002
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:03:15. **Bukatu:** 00:07:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Etxea erre eta berria egin bitartean Bernardo Eibarko Altzuarren baserrian egon zen senide batzurekin; gurasoak, berriz, San Andresen, gaur egun elkarte dagoen lekuan. Baserri berria eraikitze inguruan ateratzen zuten harria. Etxea nola egin zuten. Urrea azaldu omen zen etxea erretakoan eta Bernardoren amak don Benigno apaizari saldu omen zion urrea.

3. Gripe-garaian jende asko hil zenez hil-kanpaiak jotzea debekatu zuten

- **Erref:** SOR-048/005
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:10:05. **Bukatu:** 00:13:00

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Etxea erre zenean amak bazekien gutxi gorabehera non zegoen urrea eta ontzi batean gorde zuen. Aita 1918an gripeak jota gaixotu zen eta lau urteren ostean hil egin zen. Inguruetan jende gehiago ere hil omen zen gripe-garaian. Asko hil zirenez kanpaiak jotzea debekatu egin zuten, etengabeko zarata egongo zelako bestela.</p>

4. Baserria erre osteko laguntzak

- **Erref:** SOR-048/006
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:13:00. **Bukatu:** 00:16:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>"Caja de ahorros"-ean mikelete nafar bat egoten zen. Etxea erre zitzaizenean Foru Aldunditik mikeleteari galdetu zioten ea ze diru-laguntza edo behar zen, eta hark ez zutela premiarik esan omen zuen. Ez zeukaten ezer eta "etxe-erre batzen" ibili ziren. Ama senarra hiltzean berriz ezkondu zen, eta hura ibili zen "etxe-erre batzen". Etxeek herri mailako seguro antzekoa izaten zuten. Auzoko mutilek etxe berria egiteko egurrak ekarri zituzten pistetatik gora ermitaraino.</p>

5. Etxearen inguruko lexikoa: "medellin"-a eta "kampirixuak"

- **Erref:** SOR-048/007
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:16:05. **Bukatu:** 00:17:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Etxea erre zenean "medellin"-ik ere ez zuela esaten du Bernardok. "Medellin"-a zeri deitzen dioten. "Kampirixuak" zer diren. "Kampirixuak" egiteko egurrak bizkarrean ekarri zituzten auzoko mutilek pistetatik gora.

6. "Obe" izenaren jatorria

- **Erref:** SOR-048/008

- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:17:50. **Bukatu:** 00:19:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Aita eta aitita ere Obe baserrian jaiotakoak ziren. "Obe" izenaren jatorria; "Oberena" omen zen lehenago. Duela gutxi norbaitek esan omen zien Obe eta Iturbe zaharra zirela Sorluzeko baserri zaharrenetakoak.

7. Garai bateko txanponak

- **Erref:** SOR-048/010
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:22:45. **Bukatu:** 00:24:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Garai bateko txanponak. Pezeta diru asko zen lehenago. Zentimo batekoak eta bikoak ikusi izan ditu Bernardok baina bere garaian jada ez ziren erabiltzen. Nolakoak ziren txanponak.

8. Gaztainadia zuten "Urasandi"-n

- **Erref:** SOR-048/012
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:25:50. **Bukatu:** 00:28:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Garai batetik basoak asko aldatu dira. Lehen pagadiak eta hariztiak egoten ziren, baina gerora bota eta pinua sartu zen. Gaztainadiak pareko mendian izaten ziren ugari. Beraiek ere bazuten gaztainadia han eta familia osoak hilabete egiten zuen gaztainak biltzen. Udazkena izaten da gaztaina-sasoia; garai gogorra izaten zen bestela ere lan ugari egoten zen eta. Gaztainadiari "Urasandi" deitzen zioten. Entzunda dauka Bernardok garai batean bi zatitan banatzen zela Soraluze: Urasondo, erreka bestaldekoa, eta Soraluze.

9. Errekaz bestaldeko "Urasandi" zonan gaztainak batzen; gero imilaunka saldu

- **Erref:** SOR-048/014
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:28:25. **Bukatu:** 00:32:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Errekaz beste aldekoari "Urasandi" deitzen zioten. Inguru hartan zuten gaztainadia gurasoek eta hilabete inguruan familia osoa ibiltzen ziren gaztainak biltzen. Goizean goizetik bazkariarekin joaten ziren eta astoekin ekartzen zituzten gaztainak. "Sardaixak" erabiltzen zituzten gaztainak botatzeko eta jasotzeko, berriz, "mordazia", egurrezko kako antzekoa. Aletuta zegoen gaztaina plazara eramaten zuen amak saltzera. gaztaina kiloka beharrean "imillaun"-ka saltzen zen. "Imillauna" koadro txiki bat izaten zen eta 3 kilo gaztaina hartzen zituen.

10. Imillaun gaztaina 2 pezetatan

- **Erref:** SOR-048/016
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:34:00. **Bukatu:** 00:35:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Gaztaina "imillaun"-ka saltzen zen. "Imillaunak" 3 kilo gaztaina hartzen zituen eta bi pezetatan saltzen zen. Etxean ere jaten zituzten gaztainak: freskoak ziren artean egosita eta gero erreta. Bera mutikoa zela neguko parterik haundiena gaztainak zuritzen pasatzen zuten.

11. Atxolin ingurura garotara

- **Erref:** SOR-048/017
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:35:30. **Bukatu:** 00:37:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Atxolin ingurura joaten ziren garotara, baita Elgoibar partera ere. Garoa inportantea izaten zen simaurra egiteko. Lera edo narrarekin joaten ziren garotara. Udazkenean egoten zen lan gehien.

12. Leraren deskripzioa; hari jartzen zitzaizkion "ezarkixak"

- **Erref:** SOR-048/019
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:37:55. **Bukatu:** 00:41:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Lera zer den azaltzen dute. Lera nolakoa izaten zen. Neguan "ezarkixak" jartzen zitzaikion gogortzeko, bestela urtero lera berria beharko zen eta. Ezarkiak egur gogorrekoak izan behar ziren eta eskien antzeko forma izan behar zuten. Halakoen bila ibiltzen ziren txaran. Egurra sasoian moztu behar izaten zen. Gero mantentzeko zer egiten zitzaion.

13. Lursail guztiak landu egiten ziren

- **Erref:** SOR-048/021
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:42:50. **Bukatu:** 00:45:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Lurra lantzea
- Baserría » Baserríko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Lehen zelai gutxi zegoen sail guztiak landu egiten ziren eta. Lursail handi samarrak zituztenek garia erein eta gero lurra deskantsuan uzten zuten pare bat urtean. "Lubarríxa" esaten zitzaion horri. Simaurra behar izaten zen lur guztiak ongarriztatzeke eta batzuetan denentzat ez zegoenean zuzenean botatzen ziren sorora kortako azpiak. Garia, artoa, patata, arbia, erremolatxa... ereiten ziren.</p>

14. Domeketan 6tako meza ostean plaza eroslez beteta

- **Erref:** SOR-048/022
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:45:05. **Bukatu:** 00:47:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlíjioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Baserría » Baserríko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Ortuko jeneroa kalera saltzera eramaten zuten esnearekin joaten zirenean. Letxuga, aza, leka... eramaten ziren eta baita gereziak ere. Larunbatetan bildu eta igandetan plazara eramaten zituzten saltzeko. Goizeko 06:30ean egoten zen lehenengo meza ("albakua") eta hura entzun ostean plaza emakumez bete egiten zen. Marisol gaztea zela hiru anai-arreba joaten ziren jeneroa saltzera kalera goizean goiz eta gero 9tarako eskolara. Bernardoren emazteak semea soldadutzara joan zenean utzi zion plazara joateari.</p>

15. Umetan amari esne-partitzen laguntzen; "Piston" aguazila

- **Erref:** SOR-048/024
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:47:55. **Bukatu:** 00:50:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Bernardo ere batzuetan joaten zen amarekin plazara. Uda partean lana egoten zen etxean, baina negu partean eskolara joan aurretik amari laguntzen zion esne-partitzen. "Piston" aguazilaren inguruko kontuak; kalean zebiltzan umeak zaintzen ibiltzen zen.

16. Baserritarren artean pikeak plazan posturik onena hartzeko

- **Erref:** SOR-048/025
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:50:25. **Bukatu:** 00:52:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Marisol kaletik hurbileko baserrikoa da eta plazara asko joaten zen. Goizeko meza (albakoa) entzun ostean plazara joaten zen hango giroa ikustera. Plazara saltzera lehenengo joaten zenak posturik onena aukeratzen zuen eta baserritarren artean pikeak egoten ziren. Bernardoren emaztea omen zen argiena, 10ak inguruan joan eta kalean jartzen zen saltzen, jendea pasatzen zen lekuan.

17. Erregetxean zegoen astotokia

- **Erref:** SOR-048/026
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:52:30. **Bukatu:** 00:54:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Astoan jaisten zuten jeneroa kalera eta Erregetxean astotokia zegoen haiek lotzeko. Bakoitzak ahal zuen moduan lotzen zuen astoa eta zenbaitek besteen astoak soltatzen zituzten euren lotzeko.

18. Lehen frutak kanpora exportatzen ziren; gaur egun alderantziz

- **Erref:** SOR-048/027
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:54:00. **Bukatu:** 00:55:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Plazan mugimendu handia egoten zen, lehen ez zegoen bestelako frutategirik eta. Kanporako ere hemendik eramaten ziren frutak. Gaur egun dena asko aldatu da eta zaila da kanpotik datozen produktuei kontra egitea. Lehen sasoian sasoiko fruta egoten zen. Gabonetarako ez zen sagarrik ikusten, etxerako gordetako ale bakanak bakarrik.

19. Erregetxearen inguruko azalpenak

- **Erref:** SOR-048/028
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:55:15. **Bukatu:** 00:58:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Erregetxean zegoen plaza eta baita astotokia, eskolak, gartzela... Jendea ere bizi zen bertan. Nortzuk bizi izan ziren. Erregetxea harrizko eraikina zen eta eguzki-erlojua ere bazuen. Etxe handia zen oso. Beraiek beti ezagutu dute jendea bertan bizitzen, baina aurretikoen inguruko konturik ez dakite. Lehenago erregea bizi ei zen han eta soldaduak egoten omen ziren Soraluzen.

20. Gilaneko zubitik elizako aldarea parean

- **Erref:** SOR-048/029
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:58:55. **Bukatu:** 01:00:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Bernardok entzunda dauka Gilaneko zubitik elizako aldarea pare-parean dagoela. Gaur egun udaletxea dago tarteko, baina agian udaletxea geroagokoa izango dela diote. Honen inguruko eztabaida.

21. Gerra garaian, zanga egin zuten bidean aurkariak ez pasatzeko

- **Erref:** SOR-048/030
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 01:00:30. **Bukatu:** 01:02:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerra denboran, Eibar "zona gorria" zen eta Soraluzen zeuden nazionalak. Soldaduek bost-sei hilabete egin zituzten herrian. Irailaren 22an sartu eta martxo inguruan egin zuten alde. Ezozitik behera etorri ziren eta Igaraten, herriaren sarreran, zanga bat egin zuten bidean, aurkariak ez pasatzeko. Berak 19 urte zituen eta bera ere ibili zen lan horretan.</p>

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com